

ERIZAINA BEHAR DUGU

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- EUD. Erizaintzako Diplomatura edo Gradua
- Erizainen Elkargo Ofizialeko txartela

Azalpena

Babesten Taldean, ERIZAIN bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, zentroko medikuaren eta laguntzako arduradunaren zuzendaritzapean:

- Medikuarekin batera, egoiliarren osasun-egoera ona lortzea, osasun-arloko premiak estaltzean arreta eraginkorra bezain egokia dela ziurtatzeko eta, diziplina anitzeko lanaren esparruan, kasuan-kasuan zehaztutako jarraibideak betetzeko eta betearazteko.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Egoiliarrak eta haien giza zein osasun premia orokorrak zaintzea eta artatzea, baina, batez ere, haien zerbitzuak behar dituztenean.
- Medikuak agindutakoaren arabera, sendagaiak prestatzea eta ematea, baita tratamenduak zein diren zehaztea ere. Zentroko Sendagaiak Emateko Prozedura kontuan hartuta, asteko kutxako sendagaien karga ausaz kontrolatzea.
- Zentrorra iristen diren erabiltzaileei harrera egitea, haien datuak biltzea eta erregistratzea, laguntzaileen arduradunaren laguntzaz.
- Erizaintzan zehaztutako balioespena egitea: alergiak, nutrizioaren balioespena, kanporaketaren balioespena, loaren balioespena, osasun-hezkuntzako premiak, indarreko tratamenduaren egiaztapena eta honako hauexen erregistroak kontrolatzea eta eguneratzea:
 - Azken txertoak eta analisiak.
 - Larruazalaren eta azal eusleen osotasuna.
 - Laguntza teknikoaren erabilera.
 - Behar dituzten teknika berezien erregistroak (SNG, SV...).
- Medikuaren aginduak kudeatzea, jarraipena egitea, erregistroetan zein Resiplusen behar bezala sartzea eta kasuan kasuko solairuan lekurtzea.
- Nutrizioaren egoera eta kasuan-kasuan zehaztutako dietak ikuskatzea, jarraipena egitea eta kontrolatzea.
- Solairuko taldeei egoiliarrak zaintzeko planetan gertatutako aldaketa adierazgarrien berri ematea.

- Baliabide materialetako gabezien berri ematea, artapeneko zerbitzuari edota laguntzako arduradunari jakinarazteko.
- Erizaintzako alta-txostena prestatzea.
- Zaintzako medikuari harrera egitea eta agindutako tratamendua ematea.
- Hileta-zerbitzuari harrera egitea eta prozesua eraginkorra dela kontrolatzea.
- Bajaren, altaren eta barruko lekualdaketaren ostean, erregistroak eguneratzea.
- Diziplina anitzeko taldearen bileretan parte hartzea.
- Osasun-arloko materialak eta erizaintzarako gailuak erabiltzeko baldintzak kontrolatzea, material horien erabilera ona izan dadin.
- BAPren prestaketan parte hartzea.
- Zentroaren urteko memoriaren prestaketan parte hartzea.
- Honako hauexen prestaketan, diseinuan, ezarpenean eta aplikazioan parte hartzea: osasunaren eta erizaintzaren arloko arretarako arauak, eskuliburuak, prozedurak, politikak, planak, programak eta proiektuak.
- Honako arlo hauetako erantzukizunak eta eginkizunak betetzea: laguntza, administrazioa, ikerketa, irakaskuntza, aholkularitzak eta kontsultoretzak.
- Erabiltzaileei erizaintzako kontsulta egitea, sustapenerako, prebentziorako, arretarako eta zaharberrikuntza bereziko ekintzen bidez.
- Neurri epidemiologiko guztiak hartzea, gaixotasunak barreiatu ez daitezen.
- Ikerlanetarako aholkularitza ematea eta erizaintzarekin lotutako artikulu zientifikoak egitea.
- Euren jardueraren bitartez sortutako informazioa erregistratzea zentzoko Zuzendaritzak adierazitako eta Kalitate Eskuliburuan zehaztutako formatuetan edota tresnetan.
- Oro har, zehaztu gabe egon arren eskatzen dizkieten jarduera guztiak egitea, euren titulazioaren eta lanbidearen arabera.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Behar diren proba analitikoak, hazkuntzak, ECG... egitea eta kontrolatzea eta haien jarraipena programatzea.
- Konstanteak kontrolatzea, aurretiaz atondutakoak nahiz eskatutakoak.
- Hileko pisuen eta GMIren erregistroa, kontrola eta jarraipena egitea.
- Balioespen Geriatrikorako Eskalak aurretiaz antolatutakoaren arabera egitea; esate baterako, Barthel eskala, Braden eta MNA.
- Ahoz hartu beharreko osagarrien premia eta jarraibideak erregistratzea, jarraian ematen direla ziurtatzeko.
- Kanporatzeko eredia kontrolatzea eta medikuari objektibatutako premien berri ematea.

- Espezialisten kontsulten jarraipena egitea eta behar diren agiriak prestatzea.
- Agindutako tratamenduen birbalorazioak eta egunez eguneko gorabeherak Medikuntza Zerbitzura bideratzea.
- Pazienteen jarraipena egitea Osabideko Globalclinicen eta Resiplusen bidez.
- Behar denean, Larrialdietako Zerbitzura bideratzea eta, sarrera bakoitzean, ospitaleko egonaldiaren jarraipena egitea.
- Erabiltzaileen sendagaien eskaera unean-unean kudeatzea, jasotzea eta kontrolatzea.
- Hala badagokio, senideei erabiltzaileen osasun-egoerari buruzko informazioa ematea, baina, batez ere, gertaera adierazgarriak daudenean (erorikoak, eratorpenak...).
- Ikasleei gidalerroak zein irizpideak azaltzea, haiekin jakintza eta esperientzia partekatzeko asmoz.
- Lankide sartu berrien harrerarako, integratzearako eta prestakuntzarako prozesuetan parte hartzea, haien informazio eskaerei eta eskabideei erantzuteko.
- Lankide sartu berriei gidalerroak zein irizpideak azaltzea, jakintza eta esperientzia partekatzeko asmoz.

Zentroko langileei dagokienez:

- Laguntzaileek egindako ekintzak ikuskatzea eta kontrolatzea, laguntzaileen koordinatzaileen laguntzaz zehaztutako arauen, tekniken eta prozeduren arabera euren eginkizunak bete ditzaten.
- Taldean bete-betean parte hartzea, diziplinarteko balioespenetan, balioespen horien ondorioz banakako arretarako sortutako planen prestaketan eta aurretiaz zehaztutako jarraipenetan.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundearen (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi LinkedInen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- Lanaldi osoa, lanaldi partzialerako aukera.
- Kontratu mugagabea.
- Hitzarmeneko baina soldata handiagoa.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa